

JARDUERA BALANTZEA OSAKIDETZAN 2016KO LEHEN SEIHILEKOA

LEHEN MAILAKO ARRETA

2016. urtean Lehen Mailako Arretako **jarduera handitu egin da**, bai medikuen kontsultei zein erizaintzari dagokienean.

2016ko lehen sei hilekoan **telefono bidezko kontsultak 1.300.000 baino gehiago hazi dira**. Hortaz, familia-medikuntzako eta pediatriako **kontsulta guztien % 21** telefono bidez egin dira. Telefono bidezko kontsultek herritarren artean **oso harrera ona dute**, osasun-zentrora eta/edo anbulatoriora joateko beharrik ez dutelako; izan ere, osasuneko profesionalak pazienteari arreta pertsonala eskaintzen dio kontsultara hurbildu beharrik gabe.

Aurrez aurreko kontsultak, iazko epe berarekin alderatuta, % 3,7 hazi dira. **6 milioi kontsulta baino gehiago** egin dira.

Azpimarratu behar da **Lehen Arretan erizaintzako kontsulten kopuruak gora egin duela** eta % 3,4 hazi dela. 1.900.000 kontsulta baino gehiago egin dira.

Paziente bakoitzari 10 minutu inguruko arreta eskaintzen jarraitzen dute.



ARRETA ESPEZIALIZATUA

Kontsultak

Arreta espezializatuko kontsultak ere % **4,8 hazi dira**. Azpimarratzekoa da Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuaren arteko **interkontsulta ez-presentzialen % 40tik gorako gehikuntza**. Datu hori mailen arteko koordinazioko eta eraginkortasunaren hobekuntzako adibide da, eta Osakidetzan 2016an jada osatu den ESlen antolakuntza-egituran integratu dela adierazten du.

Kontsulta horiek Lehen Mailako Arretako jarduera indartzen dute kontsultore moduan jardunez, pazienteari erantzun azkarragoa emanez eta pazienteak ospitaletara alferrik joatea saihestuz, bi mailek koordinatuta lan egiten baitute.

Arreta Espezializatuko telefono-kontsultei dagokienean, 2016ko lehen sei hileko honetan ia 115.000 kontsulta egin dira, eta profesionalak paziente kronikoen jarraipena errazteko erabiltzen dituzte.



TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK

Pertsonen eta Osakidetzaren arteko harreman modu ez-presentzial berrien ondorioz telefono bidezko kontsultek gero eta garrantzi handiagoa dute osasun-arretan.

Guztira **Osakidetzan telefono bidezko 1.400.000 kontsulta baino gehiago** egin dira, 2015ko garai bereko datuekin alderatuta % 11,2 gehiago.

Herritarren artean telefono bidezko kontsultek oso harrera ona izan dute, osasun-sistema eskuragarriagoa egiten dutelako eta alferrikako joan-etorriak saihesten dituztelako. Lehen Mailako Arretan, pazienteek eska ditzakete telefono bidezko kontsultak, osasun-zentroan bertan edo interneteko Osakidetzaren Web Hitzordua sistemaren bidez.

Arreta Espezializatuaren kasuan, telefono bidezko kontsultak osasun-langileek agintzen dituzte patologia kronikoen jarraipena egiteko.



Gaur egun, Lehen Mailako Arretan, egiten diren familia-medikuntzako kontsulten % 22 telefono bidezkoak dira; pediatrian, berriz, % 16a.

ARRETA JASOTZEN DUTEN HERRITARREN EHUNEKOA ADIN TARTEEN ARABERA

Azken 10 urteetan euskal biztanleria asko zahartu da eta horrek eragina izan du osasun-arretari dagokionean. Izan ere, **hamarkada honetan Osakidetzako akutuen ospitaletan izan diren ospitalizazioen batez besteko adinak 4,5 urte gora egin du**; gaur egun ia 60 urtekoa da.

Era berean, 80 urtetik gorako ospitaleratutako pazienteen kopurua bikoiztu egin da azken 10 urteetan.

Ospitalizazioen ondorioz kirurgiako jardueraren ehunekoa etengabe handitu da, eta gaur egun ospitalizazioen % 47ra heldu da. Duela hamar urte ospitaleratutako % 13k baino ez zituen 80 urte baino gehiago; gaur egun, berriz, % 21era heldu da.

% Adin-tarteen arabera artatutako herritarrak



Osakidetza


- 4,5 urte handitu da ingresuen batez besteko adina
 - 55,3 urtetik 59,8 urtera
- Kirurgiako jardueraren ingresuen % handitu da:
 - Ingresuen %47 kirurgiako jardueraren ondorio dira (2005ean %41).
- 80 urte baino gehiagokoen ingresuen % handitu da
 - Ingresuen %21a 80 urte baino gehiago dituztenenak dira (2005ean %13)
- 80 urte baino gehiago dituzten ingresatutako pazienteen kopurua bikoiztu da 10 urteetan.



OSPITALEKO JARDUERA ESPEZIALIZATUKO ADIERAZLEAK

2016ko lehen sei hilabete hauetan **ospitale-larrialdiak % 3,1 hazi badira** ere, ospitalizazioek aurreko urteko antzeko datuak erakusten dituzte, ospitalizazioa ez diren beste aukera batzuk indartu direlako; adibidez, etxeko ospitalizazio-zerbitzua.

Programatutako ebakuntza kirurgiko nagusiak ere ia % 10 hazi dira.



Kirurgia Nagusiko jarduera

Lehen sei hilabete hauetan egindako **kirurgiak % 9,8 hazi dira**. Kirurgia programatu arrunteko ebakuntzak % 10,6 hazi dira, **ezohiko ebakuntza kirurgikoek beherantz jarraitzen duten bitartean**; iazko datuekin alderatuta ia % 4 gutxiago. (-% 3,8).

Ospitalizazio gabeko ambulatorioko kirurgia nagusiari dagokionean, azpimarratu behar da programatutako **ebakuntza guztien % 61,3 ospitaleratzeko beharrik gabe** egin direla.

Kirurgia Nagusia Cirugía Mayor Ekaina 2016 Junio

1. seihilabetea 1º Semestre

IK Kirurgia Nagusia	2015	2016	%
IQ Cirugía Mayor			
IK Programatua			
IQ Programada Ordinaria	58.811	65.032	10,6%
IK Programatu Ezohikoa			
IQ Programada extraordinaria	3.438	3.309	-3,8%
Programatuak, guztira			
Total Programadas	62.249	68.341	9,8%
KNA %			
% CMA	59,1%	61,3%	2,2%



Ospitale Birtualeko jarduera (Ospitalizazioaren ordezko aukerak)

Osakidetzak “ospitalizazio tradizionalaren ordezko aukerak” deitutakoak sustatzen jarraitzen du, erakutsitako kalitatezko emaitzak eta laguntza mota honek pazienteen artean izan duen harrera ona ikusita. Beraz, **etxeke ospitalizazioak eta ambulatorioko kirurgia nagusia handitu dira**, eguneko ospitale medikoaren prozedurek iazkoen antzeko parametrotan jarraitzen duten bitartean.

Ospitale Birtuala Hospital Virtual Ekaina 2016 Junio

1. seihilabetea 1º Semestre

Ospitale birtuala	2015	2016	%
Hospital Virtual			
Etxeko ospitalizazioa			
Ingresos Hosp. a Domicilio	5.916	6.382	7,9%
Kirurgia Nagusi Ambulatoria			
Cirugía Mayor Ambulatoria	36.472	41.561	13,9%
Eguneko Ospitalea			
Procedimientos H Día Médico	166.197	166.348	0,1%



Etxeko ospitalizazioak ia % 8 haztea oso datu garrantzitsua da, ospitalizazioak murrizten direlako, eta ospitalean pasa beharreko denbora ere murrizten delako, norberaren etxera eta senitartekoen aldamenera lehenago itzuliz.

Etxeko ospitalizazioa Ospitalizazioarekin, Osasun Aholkuarekin, Larrialdiekin eta Lehen Mailako Arretarekin zuzenean lotuta dago, eta pazienteen jarraipen globala egiteko aukera ematen du. Urteko lehen sei hilekoan, **patologia kronikoa duten pazienteen eta zainketa aringarrietako pazienteen jarraipen handia azpimarratu behar da, % 26ko eta % 21eko jarraipena, hurrenez hurren.**



OSAKIDETZAREN PREBENTZIO PROGRAMAK

Osakidetzak egindako **prebentzio-programak** erabat finkatuta daude Euskadin, haien ibilbidea, parte-hartzea eta emaitzak kontuan hartuta. Euskal herritarren % 100i eskaintzen zaizkio eta guztietan parte-hartzea handia da.

Parte-hartze ehunekoak Europako altuenetakoak dira; kolon eta ondesteetako minbizia goiz atzemateko programan % 70ek hartzen du parte eta bularreko minbizia goiz atzemateko programan % 76k.

Transplanteen programari dagokionean, emaile-kopuru handia, ezezkoa eman duten familien beherakada –aurreko urtearekin alderatuta–, eta hezurmuineko transplanteen gorakada –sei hileko honetan 20tik 33ra pasatu da– azpimarratu behar dira.

Osakidetzaren Programak

Programas Osakidetza

Ekaina 2016 Junio

Beste programa batzuk Otros programas	%100eko estaldura cobertura 100%		
	Pertsonak Personas	Parte-hartzea Participan	2016
Iano aurreko baheketeta-programa Cribado Prenatal	6.554	100%	Arrisku + Riesgo + el 5,8%
Kolon-ondesteetako minbizia goiz D.P. Cribado Cáncer Colon	90.406	70,2%	Kartzinoma Carcinoma 137
Bularreko Minbizia Goiz D. P. Detec. Precoz Cáncer de mama	73.805	76,1%	Defektuzko erregistroa Incidencia Cáncer deteccionados 335

Transplanteen programa Programa Trasplantes	PRIMER SEMESTRE	
	2015	2016
(maileak pertsonak/miles)		
Donantes PMP	41	42,4
Familien ezetzak Negativas familiares	8%	6%
Griftzuzunefeko T.	90	89
T. Renal	(17 vivo)	(11 vivo)
Gibeluko T.		
T. Hepático	43	42
Trasplantes Médula Ósea	20	33




OSPITALETAKO ITXARON ZERRENDAK

2016ko lehen sei hilekoan Osakidetzako **itxaron-zerrenden** datuak iazkoen antzekoak dira, eta batez besteko berandutzeak **Osakidetzan finkatutako helburuen barne daude**.

Ondorengo tauletan kanpo-kontsulten zein azterketen kirurgiako itxaron-zerrendak zehazten dira, baita ESIren zein Osakidetzako zerbitzuen batez besteko berandutzeak ere.

Pazienteen kopurua murriztu egin da eta Kirurgiako batez besteko itxaron-zerrendaren berandutzea 50 egunetik beherakoa da, 65/2006 Dekretuan ezarritakoa baino hamar egun gutxiago eta 2011ko Osakidetzaren Hobekuntza Planean adierazitakoa baino bost gutxiago.

Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista Ekaina 2016 Junio				
Kirurgiako Itxaron Zerrenda	Pazienta kop. Nº Pacientes		Batez besteko atzerapena	
	2015	2016	2015	2016
Lista Espera Quirúrgica	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
OSI Araba	3.197	3.224	54,8	53,6
OSI Donostialdea	3.795	3.758	48,8	48,4
OSI Goierri-AU	751	637	53,6	54,5
OSI Bidasoa	749	564	54,9	46,0
OSI Bajo Deba	440	461	45,0	43,4
OSI Alto Deba	386	464	42,3	40,6
OSI Ezk Enk Cruces	3.268	3.259	45,2	43,4
OSI Bilbao-Basurto	2.737	2.934	52,7	52,7
OSI Barrualde-Galdakao	2.564	2.533	52,4	49,7
OSI Barakaldo-Sestao	793	787	54,1	53,7
TOTAL OSAKIDETZA	18.680	18.621	50,7	49,3
OSI Tolosaldea *		128		24,0

* Datos de la Clínica de la Asunción, concertada para la atención de pacientes de OSI Tolosaldea

Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista Ekaina 2016 Junio

Kirurgiako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. Nº Pacientes		Batez besteko atzerapena	
	2015	2016	2015	2016
Lista Espera Quirúrgica	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
Cirugía General	2.686	2.557	49,3	41,1
Oftalmología	4.087	4.022	35,0	36,7
Otorrinolaringología	1.476	1.460	54,0	58,4
Traumatología	6.317	6.299	63,1	61,2
Urología	1.002	1.104	48,3	47,1
Tocoginecología	929	805	46,8	42,1
Resto de servicios	2.183	2.374	46,6	45,8
TOTAL OSAKIDETZA	18.680	18.621	50,7	49,3



Osakidetza



Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista Ekaina 2016 Junio

Kontsultetako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. Nº Pacientes		Batez besteko atzerapena	
	2015	2016	2015	2016
Lista Espera Consultas	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
OSI Araba	14.501	14.059	28,1	28,9
OSI Donostialdea	14.397	13.654	21,0	20,5
OSI Goleiri-AU	3.147	3.464	22,6	28,4
OSI Bidasoa	2.244	2.257	16,4	19,7
OSI Bajo Deba	2.180	2.298	9,2	9,3
OSI Alto Deba	1.425	1.360	13,4	14,4
OSI Ezk Enk Cruces	14.062	13.508	17,4	22,3
OSI Bilbao-Basurto	16.843	17.439	27,5	27,7
OSI Barrualde-Galdakao	9.773	10.071	19,2	21,4
OSI Barakaldo-Sestao	5.282	4.494	25,4	26,2
H. Media Larga Estancia	1.615	3.156	14,4	24,1
TOTAL OSAKIDETZA	85.469	85.760	22,3	24,0
OSI Tolosaldea*		1.117		25,0

* Datos de la Clínica de la Asunción, concertada para la atención de pacientes de OSI Tolosaldea

Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista Ekaina 2016 Junio

Probetarako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. Nº Pacientes		Bateko besteko itxaron- denbora Espora media	
	2015	2016	2015	2016
	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
Lista Espera Pruebas				
OSI Araba	1.771	1.402	10,1	14,8
OSI Donostialdea	1.112	2.186	4,9	8,4
OSI Goleerri-AU	445	411	3,8	4,7
OSI Bidasoa	307	378	7,2	9,4
OSI Bajo Deba	591	350	7,8	5,6
OSI Alto Deba	534	496	5,2	8,0
OSI Ezk Enk Cruces	4.482	4.453	14,8	17,9
OSI Bilbao-Basurto	1.994	2.345	10,2	12,9
OSI Barrualde-Galdakao	3.640	4.901	9,8	12,5
OSI Barakaldo-Sestao	198	145	4,6	5,3
TOTAL OSAKIDETZA	15.074	17.067	9,4	12,4
OSI Tolosaldea *		131		8,3

* Datos de la Clínica de la Asunción, concertada para la atención de pacientes de OSI Tolosaldea

OSAREAN OSAKIDETZA EZ PRESENTZIALA

Komunikazioko eta laguntza sanitarioko kanal berrien erabilerari esker, **hertarrenganako irisgarritasuna handitzen ari da eta goi mailako osasun-arreta eskaintzen jarraitzeko aukera dago**. Bertan **Osasun Aholkuaren, Web Hitzorduaren eta Osasun Karpeta**ren jarduerak azpimarra daitezke.

Osasun Aholkua

Azken seihilekoan osasun-aholkuari esker paziente kronikoei emandako **arreta handitu egin da**, baita norberaren etxean telemonitorizatutako pazienteen eguneroko jarraipena ere, TelePOC, Telegutxitasun Kardiakoa eta Telepluripatologikoak programen barruan. Horri esker 443 pazienteri egunero eskaintzen zaie arreta. Gainera, osasun-aholkua behar duten kasuetan telelaguntza babesten jarraitzen da, koordinazio soziosanitarioaren adibide gisa.



Osakidetza Web Hitzordua

Osakidetza Web Hitzordua sistemak handitzen jarraitzen du, eta 2016ko lehen sei hilabete hauetan ia milioi bat hitzordu digitaletara heldu da, hau da, iazko datuekin alderatuta **% 14,6ko gehikuntza egon da.**

Web Hitzordu hau edozein gailu mugikorretan dago eskuragarri **Osakidetza app** berriaren bitartez. Horri esker, familia-medikuntzako, pediatriako eta emaginen kontsultetarako aurretiko zita eska daiteke.



Osasun Karpeta. Zerbitzu berriak

Euskal herritarren digitalizazioaren eta teknologia berrien erabileraren beste adibide bat da **Osasun Karpeta gero eta gehiago erabiltzen ari direla**. Izan ere, seihileko honetan **karpeta ia 100.000 sarrera** erregistratu dira; iazko garai bereko datuen **bikoitza**.

Pazientearen eta medikuaren arteko eta pazientearen eta Osakidetzaaren arteko erlazioa errazten duen Osasun Karpetak kontsultaren atala, informazioa eta osasun-arloko profesionalekin elkarrekintza indartzen jarraitzen du.

Karpeta funtzionaltasunak handitzeko helburuarekin, Osasun Karpeta bitartez **Kirurgiako Itxaron Zerrendako prozesu gehiago** kontsulta daitezkeela azpimarra daiteke. Halaber, **tutoreei edo gurasoei euren seme-alaben informazioa eskura jartzen zaie karpeta honetan**. Hauxe zen, hain zuzen ere, gehien eskatzen zen zerbitzuetako bat.



Herritarraren Osasun Karpeta
Carpeta de salud del ciudadano

Osasun Karpeta	2015	2016	%
Carpeta de Salud			
Sarrerak	52.744	98.515	86,8%
Accesos			

1 Consultar y recuperar

- Lista de Espera Quirúrgica
- Mi historial clínico
- Próximas citas
- Informes Clínicos
- Acceso a Menores

2 Enriquecer

- Autoseguimiento
- Gestión de enf. Crónicas
- Subida de documentos

3 Interactuar

- Mensajes al paciente
- Dudas con tu médico
- Diario del paciente

Osakidetza

Kirurgiako Itxaron Zerrendako prozesuak Osasun Karpetatik kontsultatzea

2015eko bigarren seihilekoan jarritako **Kirurgiako Itxaron Zerrenda Osasun Karpetatik** kontsultatzeko zerbitzuan bilduta daude Osakidetzan gehien ematen diren prozedura kirurgikoak, eta ebakuntza baten zain daudenei ebakuntza programatu arte zein egoeratan dauden ezagutzeko aukera ematen zaie.

Horrela, **zerbitzu guztietan**, osasun-karpetatik **kontsulta daitezkeen prozesu kirurgikoen kopurua handitu egin da**. Gaur egun, **Osakidetzan programatutako ebakuntza kirurgiko guztien % 60 baino gehiago kontsulta ditzakegu bertan**.

Orain arte 24 prozesu kontsulta zitezkeen 9 zerbitzutan banatuta: Kirurgia Orokorra, Kirurgia Baskularra, Dermatologia, Ginekologia, Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Traumatologia, Urologia eta Bihotzeko Kirurgia.

Gaur egun **beste 13 prozesu** gehitu direnez, une honetan **kirurgiako itxaron-zerrendako 37 prozesu** kontsulta daitezke. Prozesu horiek garrantzitsuak eta maiz ematen direnez, Osasun Karpetan eskuragarri edukiko ditugu.



Kirurgiako itxarote-zerrenda **Lista de espera Quirúrgica**

HERRITARRAREN OSASUN KARPETA **CARPETA DE SALUD DEL CIUDADANO**

Prozesuen zerrenda handitzea

- 1 Zerbitzu guztietan banatuta**
- 2 Haien KIZ ikusi dezaketen pazienteen % handitu da 51etik 60ra**

Kolezistektomiak, kirurgia hauek:
Tiroidea, Malko-aparatua, Hemorroideak,
Kirurgia testikularra, Laringeakoa
Belarrikoa eta Sudurrekoa, Behazun-
maskurikoa, Artrodesia eta Artroplastia,
Gernu-inkontinentziak onpontzea...

Osakidetza

Osasun Karpetarako sarrera berriak

Behar bezala baimendutako **tutoreei eta gurasoei euren seme-alaben Osasun Karpetan sarrera** errazteko herritarrek egindako eskaerari erantzunez, Osasun Karpetan **funtzionaltasun berri hau** eskaintzen da.

Orain arte Osakidetza OTI zuten 16 urtez gorakoek baino ezin zuten euren osasun-karpeta kontsultatu. Baina ezin zen 16 urtez azpikoen karpeta kontsultatu. Hori dela eta, adingabe horien gurasoei eta tutoreei karpeta horretan sartzen uzteko beste funtzionalitate bat ezarri da Osakidetza. **Era horretan, Osasun Karpetan gehien jaso diren eskaeretako bati erantzungo zaio.**

Bestalde, **legez desgaituta dauden pertsonen ordezkariak ere bertan sartzeko aukera emango zaie.**

Adingabeen zein legez desgaituta dauden pertsonen kasuan, euren ESI beharrezkoak diren lege-baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

Gainera, **titularrak berak baimendutako ordezkariak sartzeko baimena eman ahal izango die.** Zerbitzu horri esker, adineko pertsonak euren osasunari buruzko informazioa eskuratzeko baimena eman ahal izango diete euren seme-alabei, adibidez. Titularrak berak beste pertsona bati sartzeko baimena eman nahi badio, baimen hori ESIren barrutik zein bere osasun-karpetatik bertatik zuzenean kudeatu ahal izango du.

Sarbideak
HERRITARRAREN OSASUN
KARPETA
Accesos
CARPETA DE SALUD
DEL CIUDADANO

Osasun Karpetarako sarbideak

- Osakidetza OTI duten 16 urte baino gehiago dituzten pertsonak
- Hirugarren Pertsonen sarbide berria:
 - **Gurasoak eta adingabekoen tutoreak**
 - **Legez ezgaituen ordezkariak**
 - **Titularrak baimendutako ordezkariak**

Beharrezkoa izango da lege-eskakizunak zure OSIn egiaztatzea
 Titularrak berak ere bere karpetatik kudeatu ahaliko du

